

2014KO AZAROAREN 13KO EBAZPENA, GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOAREN KONTRATAZIO MAHAIARENA, ARALAR NATURA PARKEKO PARKETXE HEDATUAREN (ATAUN) DINAMIZAZIORAKO ETA ARRETA ZERBITZUA EMATEKO 003/2010 KONTRATUA ESLEITZEN DUENA

ONDORIOZ: Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren Patronatoak 2014ko irailaren 24n adostu zuen Ataungo Aralar Natura parkeko interpretazio zentro edo Parketxe hedatuaren dinamizaziorako eta oinarrizko arreta zerbitzua emateko 003/2014 espedientea onartzea, prozedura ireki bidez esleitzeko, gehienez 91.000 euroko aurrekontua xedatuta, eta Fundazioak zehaztutako administrazio klausulen pleguen eta baldintza teknikoen agiriaren arabera.

ONDORIOZ: Kontratua, dituen zenbatekoa eta edukia aintzat hartuta, 2. mailako kontratu gisa sailkatu zen Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioko Patronatoak 2010eko irailaren 13an onartutako barne kontratazio arauen arabera. Arau horiek Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren webguneetan (<http://www.gipuzkoamendizmendi.net/parketxeak> eta <http://www.parketxesarea.org>) argitaratu ziren. Hala, kontratua, oro har, prozedura negoziatu bidez esleitu ahal izango da, baina baita prozedura ireki bidez ere, Fundazioko Patronatuak, berme eta gardentasun handiagoa lortzeko, horixe erabakitzen badu, hain zuzen, 2014ko irailaren 24n egin zuen bezala.

ONDORIOZ: Lizitazio-deialdia, administrazio-klausulen pleguak eta baldintza teknikoen agiria 2014ko irailaren 29n argitaratu ziren Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren webguneetan (<http://www.gipuzkoamendizmendi.net/parketxeak> eta <http://www.parketxesarea.org>) eta iragarkia ikusgai dago oraindik ere, kontratazio 12. barne arauetan zehaztutakoa betez, eta sektore publikoko kontratazio legearen testu bateratuaren 159. artikuluan ezarritakoaren arabera.

ONDORIOZ: Proposamenak aurkezteko epea 2014ko urriaren 20n amaitu zen. Honakoak dira jaso direnak:

- INGURUGIRO ZERBITZUAK ARTELATZ S. COOP-ek proposamena aurkeztu zuen 2014ko urriaren 17n.

ONDORIOZ: Kontratazio mahaia, Roke Akizu Aizpiri jauna (Patronatuaren presidenteordea) buru zuena, Luis María Zaldúa Etxabe jauna (Fundazioaren zuzendaria) eta Igor Aierbe Guridi jauna (Ataungo alkatea) mahaikide zituena eta Alfonso Acarreta Rodríguez jauna idazkari (hitz egin bai, baina bozkatzeko eskubiderik ez zuena) gisa zuena, 2014ko azaroaren 5n bildu zen, aurkeztutako proposamenak aztertu, ikuskatu eta baloratzeko.



Gipuzkoako Parketxeak

CPS FUNDAZIOA

KONTUAN HARTU DUTE: Kontratazio mahaiak, proposamena aztertu ondoren, INGURUGIRO ZERBITZUAK ARTELATZ S. COOP-i kontratua esleitzea proposatu du, enpresa horren proposamena egokia delako, ikuspegi teknikoari eta kalitateari dagokionez, behintzat, fundazioaren nahiak betetzeko.

Erreferentziazko espedienteak dituen pleguak, jasotako dokumentazioa, aipatutako xedapenak eta aplikazio orokorreko gainerako kontuak aztertu dira.

EBATZI DUT:

LEHENDABIZI- INGURUGIRO ZERBITZUAK ARTELATZ S. COOP (IFZ: F-20565941) erakundeari esleitzea 003/2014 zenbakidun kontratazio espediente, Ataungo Aralar Natura parkeko Parketxe hedatuaren dinamizazioa eta oinarrizko arreta zerbitzua kontratatzeke. Esleipenaren zenbatekoa guztira, 90.500 eurokoa da, BEZ barne.

BIGARRENA.- Sektore publikoko kontratazio legearen testu bateratuaren 151. eta 153. artikuluetan adierazitakoaren arabera, interesatuek kontratazio mahaiari eskatu ahal izango diote proposamenak baztertzeko erabilitako arrazoiei buruzko informazioa, hala nola esleipena jasotzeko erabakigarriak diren ezaugarrien ingurukoa.

HIRUGARRENA.- Honako ebazpena jakinaraziko zaie interesatuei eta kontratazio organoaren profilean argitaratuko da (<http://www.gipuzkoamendizmendi.net/parketxeak> eta <http://www.parketxesarea.org>), sektore publikoko kontratazio legearen testu bateratuaren 53. eta 151. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Donostian, 2014ko azaroaren 13a.

Alfonso Acarreta Rodríguez
Kontratazio mahaiko idazkaria

Roke Akizu Aizpiri
O. E. Mahaiburua